

Ordizian, 2017ko apirilaren 24an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

| | |
|-----------------------------|---------------|
| Jose Ignacio Iturrioz Gotor | EAJ/PNV |
| Jon Ander Caballero. | EH BILDU |
| Mila Sukia Galparsoro | Ordizia Orain |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2017ko apirilaren 3ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
- 3.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:35



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko apirilaren 3ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko apirilaren 3ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6000 €tik beherako fakturak.

15 eta 16 zenbakidun zerrenden berri eman da.

Kopurua guztira: 32.267,68 €

Fakturei oniritzia eman zaie.

.....

- Alkate Jn.

Adierazi du San Jose Egoitza Erakunde Autonomoko Zuzendaria/Kudeatzailea 2017ko apirilaren 7an Gaztetxean izandako kontzertuaren inguruan kexatu dela. Egoitzako erabiltzaileak, sortzen diren zarategatik kexak dituzte eta gatazkaren bat ere izan da egoitzan. Hurrengorako kexa hauek kontuan hartzea erabaki da.

- Iturrioz Jn.

Aurreko urteko exekutatu gabeko partiden artean, Jose Arana, Oianguren etab lokalen erosketak daude.

Dubreuil jaunak kultur taldeen partetik lokal eskaera berriak daudela dio, Osakidetza (handitzea), ongizatea (baldintza arkitektonikoak betetzen ez dituen eraikina) eta horrez gain, gizarte zerbitzuek behar dituzten gune eta lokal berriak.

Hau da, uste du honen gainean hausnartu beharra dagoela. Udalak erabilgarri dituen lokalen informazioa bilduko du eta gai honen inguruan lan egin.

.....

4.- Galde-eskeak.

1.- Sukia andereak hotelaren proiektuaren gaia nola dagoen galdetu du.

Alkate jaunak, beharbada praktikoena eta legez zuzenena, AOTren txosten juridikoaren arabera, zuzeneko esleipen bat egitea litzatekeela erantzun dio.

Kontuan izan beharreko beste aukera bat trukea izango litzateke. Bide honetan sakontzea adostu da.

2.- Sukia andereak, apirilaren 21ean, GAZTE-LOKALean izandako gertaeren inguruan galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.